

Ohiko Galderak

IRUZURRAREN ETA USTELKERIAREN AURKAKO PLANA

(HFP-Ogasun eta Funtzio Publikoaren Ministerioaren 1030/2021 Agindua)

1. Udal guztiak behartuta al daude Iruzuraren eta Ustelkeriaren Aurkako Plan bat edukitzera (hemendik aurrera “Plana”)?

Soilik Europako Next Generation Funtzen (aurrerantzean, “Funtsak”) erakunde kudeatzaile edo betearazlea izateko asmoa badute. HFP 1030/2021 Aginduaren 6.1 artikulua.

Bestela, ez litzateke nahitaezkoa izango Plana edukitzea. Hala ere, oso gomendagarria da udalek beren kudeaketan gardentasuna sustatzeko horrelako neurriak hartzea, funtzio publikoa betetzen dutelako.

2. Zein da udalek Plana onartzeko duten epea?

HFP 1030/2021 Aginduak, irailaren 29koak, adierazi duenez, erakundeak onartu beharreko epea, gehienez, Agindua indarrean hasi eta 90 egunetakoa da, edo, bestela, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean (RTRA) gauzatzen parte hartu duela jakiten denetik.

Epe hori igarota, beharrezkoa izango da Plana onartzea Funtzen kudeaketan edo betearazpenean parte hartuko duela jakin bezain laster.

3. Zeintzuk dira Plana gaur egun onartu ez izanaren ondorioak?

Udalak ezin izango da Funtzen erakunde kudeatzailea edo betearazlea izan.

4. Eta Udalak dagoeneko erakunde erabakitzaile edo betearazle gisa jokatzeko badu?

Kasu horretan, Funtsak itzultzeko eska dakiok, baita funtsekin lotutako kontratuak eteteko edo suntsiarazteko ere.

5. Zer baldintza bete behar ditu Plan honek?

Aipatutako aginduaren 6.1 artikulua ezinbesteko baldintza hauek aipatzen ditu:

- Iruzuraren aurkako neurriak iruzurraren aurkako zikloaren inguruan egituratzea (prebentzioa, hautematea, zuzenketa eta zigortzea).

- RTRA gauzatzeko funtsezko prozesuetan iruzur-arriskuaren, inpaktuaren eta probabilitatearen ebaluazioa aurreikustea, eta noizbehinka berrikustea, bi urterik behin edo urtean behin, iruzur-arriskuaren arabera, eta, nolahi ere, prozeduretan edo langileengan iruzur edo aldaketa nabarmenen bat antzeman denean.
- Prebentzio-neurri egokiak eta proportzionatuak zehaztea, egon daitekeen iruzur arriskua maila onargarri batera murrizteko.
- Alerta-seinaleetara egokitutako detekzio-neurriak aurreikustea eta horien aplikazio eraginkorra definitzea.
- Neurri zuzentzaile egokiak zehaztea iruzur-kasu susmagarri bat detektatzen denean.
- Kasu susmagarrien jarraipena egiteko eta iruzurrez gastatutako Funtzak berreskuratzeko prozesu egokiak ezartzea.
- Benetako edo balizko iruzurrarekin lotutako prozesuak, prozedurak eta kontrolak berrikusteko jarraipen-prozedurak zehaztea (arriskuaren ebaluazioa berrikustea).
- Zehazki, interes-gatazken egoerak aurreikusteari eta zuzentzeari buruzko prozedurak definitzea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Araudiaren 61. artikulua lehengo eta bigarren paragrafoetan ezarritakoaren arabera, Europar Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza-arauei buruzkoa.
- Bereziki, nahitaezkoa izango da RTRA- Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko prozeduretan parte hartzen dutenek IGEA-Interes Gatazkarik Ezari buruzko Adierazpena sinatzea, hierarkian gorago dagoenari jakinaraztea interes-gatazka potentzialen bat dagoela, eta hark kasu bakoitzean dagokion erabakia hartzea.

6. Zeintzuk dira Udalek gutxienez gauzatu behar dituzten jarduerak?

Nahitaezkotzat jotzen dira iruzurraren, ustelkeriaren eta funtzionario-eroskeriaren arriskua ebaluatzea, IGEA-Interes Gatazkarik Ezari buruzko Aitorpena betetzea eta gatazka horiei aurre egiteko prozedura bat izatea.

Prebentzio- eta detekzio-neurriak udal bakoitzaren esku utzi dira, betiere Europar Batasunaren interesen babes egokia bermatzeko beharra kontuan hartuta.

7. Zer tresna eskaintzen ditu HFP/1030/2021 Aginduak baldintzak betetzeko?

HFP/1030/2021 Aginduak interes-gatazka eta iruzurraren eta ustelkeriaren prebentzioa ebaluatzeko test bat jasotzen du II.B.5 eranskinean.

Era berean, III.C eranskinean iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazka prebenitzeko, hautemateko eta zuzentzeko neurriei buruzko orientabideak eskaintzen ditu, eta Europar Batasunaren finantza-interesak behar bezala babesten direla bermatzeko har daitezkeen neurriak aipatzen ditu.

8. Zer egin dezake udal batek iruzurra edo ustelkeria egin duela antzematen denean?

- Funtsak esleitzeko prozedura berehala etetea eta inplikaturako guztiei gertatutakoa berehala jakinaraztea.
- Ikusgai egon diren proiektu, azpiproiektu edo ekintza-ildo guztiak berrikustea.
- Gertatutakoak eta hartutako neurriak erakunde erabakitzaileari jakinaraztea. Erakunde horrek egokitzat jotzen duen informazio gehigarria eskatu ahal izango du, jarraipena egiteko eta kontrol-agintaritzari jakinarazteko.
- Gertatutakoa agintari publiko eskudunei salatzea, balora ditzaten eta Iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoari jakinaraz diezaioten.
- Informazio erreserbatuari buruzko prozedura bat abiatzea, erantzukizunak argitzeko edo diziplina-espediente bati hasiera emateko.

9. Plan hau funtsei buruzkoa baino ez da ala Udalaren jarduera guztiari buruzkoa da?

Berez plan hau funtsetarako baino ez da, baina aukera paregabea da Udalaren jarduera osora zabaltzeko eta, horrela, bere jardueran eta hirugarrenetikiko harremanetan edozein irregulartasun prebenitzeko.

10. Kontu-hartzaileak bere gain har al ditzake Iruzurraren Kontrolerako Organoaren eginkizunak?

Baliteke. Hala ere, kontuan izan behar da eginkizun desberdinak betetzen dituztela eta ez dela gomendagarria pertsona berak betetzea. Iruzurraren Kontrolerako Organoaren funtzioak Udaleko kontu-hartzailearenak baino askoz zabalagoak dira.

11. Nork onartu behar du plana? Zuzena al da Plana Alkatetzaren dekretu bidez onartzea?

Gure irizpidea da plana Udaleko gobernu-organo gorenak onartu behar duela, hau da, Udalbatzak.

12. Udal bakoitzak bere baliabideekin egin behar al du?

Bai. Hala ere, komeni da arlo horretako adituen aholkularitza eskatzea.

13. Beharrezkoa al da Kode Etikoa egitea planetik haratago?

Bai. Bestela, Planaren gutxieneko edukia kode etiko baten berezko elementuekin osa daiteke.

14. Nola jakin dezakegu Udala funtsen erakunde onuraduna, kudeatzailea edo betearazlea izango den?

Funtsen kasuan, funtzionamendua honako hau izango da: Ogasun Ministerioa da agintaritza arduraduna, eta, egin beharreko jarduketaren arabera, gaiaren arabera eskumena duen ministerioari helaraziko dizkio. Ministerio hori izango da erakunde erabakitzailea. Ministerio bakoitzak Batzorde Sektoriala deituko du funtsak autonomia-erkidegoen artean banatzeko irizpideak erabakitzeko.

Autonomia-erkidegoek funtsak jasotzen dituztenean, erakunde arteko batzordea deituko da, halakorik badago, eta, egin beharreko jardueraren arabera, dagokion batzordea. Batzorde horretan erabakiko da funtsen kudeaketan parte hartzen duen erakunde bakoitzaren zeregina (kudeatzailea eta betearazlea, edo soilik betearazlerena). Hau da, erakunde parte-hartzailearen profila Erakunde arteko Batzordeak hartzen duen akordioan adieraziko da.

Erakunde arteko Batzorde hori ez balego, EAEko Administrazio Orokorraren (funtsen hartzailea) eta toki-erakundeen arteko akordio bat sinatu ahal izango litzateke.

Kasu horretan, sinatuko litzatekeen hitzarmenean zehaztuko litzateke parte-hartzaile bakoitzaren zeregina, kudeaketa-gaitasuna eta bakoitzak bere gain hartutako erantzukizun mailak kontuan hartuta.

Euskadin, diru-laguntza motaren arabera, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Udalak izan daitezke funtsak kudeatzen edo gauzatzen dituzten erakundeak.

Gerta liteke, diru-laguntzei dagokienez, Udala onuradun izatea. Kasu horretan, oinarrian onuradun gisa eskatzen zaizkion baldintzak bete beharko ditu (besteak beste, erakunde kudeatzailearen planari atxikitzea).

15. Planaren aplikazioa funtsetara bakarrik mugatu daiteke?

Bai. Hala ere, oso gomendagarria da egindako lana aprobetxatzea Udalak garatutako jarduera guztiak bilduko dituen Iruzuraren aurkako Plana ezartzeko Udalean.

16. Beharrezkoa al da Planari buruzko prestakuntza-saioak ematea udal langileei?

Bai. Udal bakoitzean Plana behar bezala ezartzeko beharrezkoa da. Udaleko kide guztiek planaren edukia ezagutu eta ulertu behar dute, bai eta gobernu-organoak onartzen duenetik beren gain hartuko dituzten betebeharrak eta eginkizunak ere.

17. Nahitaezkoa al da jendearentzat irekita egongo den salaketa-kanal bat sortzea?

Salaketa-kanal bat sortu behar izango da, seguruenik 2022. urtea amaitu orduko. Izan ere, berehala ekarri da Espainiako ordenamendu juridikora Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko urriaren 23ko 2019/1937 (EB) Zuzentaraua. Arau hori Europar Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesari buruzkoa da.

10.000 biztanletik gorako udalerriak dituzten udal guztiei eskatu ahal izango zaie betebehari hori.

Herritar guztiei irekita egoteari dagokionez, gomendio bat da, udalek betetzen duten funtzio publikoa kontuan hartuta.

Salaketetarako kanalak anonimotasuna eta errepresaliarik ez jasotzea bermatu behar ditu edozein salatzailearentzat, 2019/1937 (EB) Zuzentaruari berariaz jasotzen dena.

18. Nork sinatu behar du IGEA-Interes Gatazkarik Ezari buruzko Aitorpena?

IGEA Udalari funtsak eskatuko dizkieten pertsona fisiko edo juridikoen sinatu beharko dute.

Era berean, funtsak esleitzeko prozeduran parte hartzen duten guztiek IGEA sinatu beharko dute, eta, betiere, honako hauek:

- Kontratazio edo diru-laguntza emateko organoaren arduradunak.
- Lizitazio-dokumentuak edo oinarriak edota deialdiak idazten dituzten langileak.
- Eskakerak, eskaintzak edo proposamenak ebaluatzen dituzten adituek.
- Eskakerak, eskaintzak edo proposamenak ebaluatzeko batzordeetako kideak.
- Funtsak emateko prozeduran parte hartzen duten kide anitzetako gainerako organoetako kideak.

Kide anitzetako organoen kasuan, IGEA hori dagokion bileraren hasieran egin daiteke, eta aktan jaso.

19. Zer dira “opariak” Onura eta Oparien Politikaren ondorioetarako?

Oparizat edo onura pertsonaltzat hartuko dira edozein motatako onura, ondasun, zerbitzu, ikuskizunetarako edo ekitaldietarako sarrera, bidaia, lehentasunezko tratua, deskontu berezi edo udaleko kideei eskaintzen, agintzen edo ematen zaien beste edozein gauza.

Trebakuntzako mintegi eta jarduera batera joatea eta hamaiketakoak edo informazio-gosariak ez dira onura pertsonaltzat hartzen, salbu eta kostuagatik, tokiagatik, testuinguruagatik edo prestazio osagarriagatik helbururako neurritz kanpokoak badira.

Praktikan, arrazoikotzat jotzen da 50-100 €-ko balio ekonomikoa gainditzen ez duen opari bat. Edonola ere, gomendagarria da Iruzuraren Kontrolerako Organoari jakinaraztea hirugarrenek opariren bat eman diotela, eta onartzeko baimena eskatzea.

20. Zeintzuk dira Iruzuraren Kontrolerako Organoaren ezaugarriak?

Iruzurra kontrolatzeko organoa izan daiteke:

- Kide bakarrekoa edo kide anitzekoa: batzuk badira, bi pertsonak edo gehiagok osatuko dute.
- Barnekoa, kanpoko edo mistoa: mistoa bada, kanpoko aholkulari batek edo batzuek eta Udaleko beste ordezkari edo kide batzuek osatuko dute.

Halaber, funtsezkoa da Iruzuraren Kontrolerako Organoak honako ahalmen hauek izatea:

- Erabakiak hartzeko ekimen-askatasuna.
- Hautemandako arriskuen eta horietako bakoitzari aplikatu dakizkiokeen kontrolen aldizkako ebaluazioa egitea.
- Plana modu loteslean interpretatzea, eta planaren edukiari, aplikazioari edo betetzeari buruz sortzen zaizkion kontsultak edo zalantzak ebaztea.
- Salaketan kanala kudeatzea.
- Barne-ikerketak hastea eta zuzentzea.
- Planaren aldaketak proposatzea.

Bere eztabaidak eta ikerketak isilpekoak izango dira besteentzat, eta irregulartasunen bat antzemanaz gero, gobernu-organoari jakinarazi beharko dio.

21. Nola jokatu behar du Udalak, enpresen arteko lehia-zuzenbidearen aurkako jardunbideak ezagutzen baditu?

Udalak legez kanpoko jardunbideak hautematen baditu hainbat enpresaren aldetik, hala nola *kolusioa*, *kartel* edo legez kanpoko beste edozein elkartzeko mota, Iruzuraren Kontrolerako Organoak berehala jakinarazi beharko dio Lehiaren Euskal Agintaritzari, dagokion ikerketa has dezan bere barne-prozeduren arabera.

Debekatutako praktikak estatu-mailakoak badira, Estatuko Merkatuen eta Lehiaren Batzordeari jakinarazi beharko zaio.

Hori guztia, Udalak kasuaren arabera aplikatu beharreko beste diziplina- edo zehapen-neurri batzuk hartzeari kalterik egin gabe.

22. Ba al dago Iruzuraren Kontrolerako Organoaren ikerketa bati lotutako dokumentazioa kontserbatzeko gehienezko eperik?

Garrantzi handikoa da Udalak ebidentzien biltegi bat behar bezala kudeatzea, plana aplikatzean gauzatutako jarduera guztiak modu frogagarrian jasota uzteko.

Kontserbazio epeari dagokionez, 10 urteko epea iradokitzen dugu.